



- **Sarrera:**

- **Nortzuk gara (Garazi):**

- Garazi eta Rania eta ongi etorri ematea gurasoei

- **Nola sortu zen ideia (Rania):**

- Nola sortu zen idea hau → 2.ebaluazioa → euskal literatura →ez ohiko proiektu bat
→dibertigarria, abestea, praktikan jartzeko, zerbait sortzea, ikastolatik kanpo→gure
gizarteko gai sozialak aztertu eta salatu nahi dugu

- **Gai nagusiak (Garazi):**

- Gure kanta askatasuna, langileria eta euskara, gazteen estereotipoak,
matxismoarekin lotuta daude →"abestuko dugun kanta hori adierazten nahi dute"

- **Baliabideak (Rania):**

- Erabili dugu kantutegiak eta hainbat baliabideak → "Juankar hainbat liburu eta
kantutegiak ekarri zuen" + "Liburuan ikasitako kontzeptuekin agertu ziren adibide
batzuk"

- **Gozatu eta ia hau zerbaitetara gogoratzen dizuen (Garazi):**

- Gure bizitza ez litzateke berdina izango musikarik gabe
 - Gure oroitzapenak, une onak, momentu txarrak, porrotak, garaipenak, kontraesanak.
Gorritoak, irriak eta malkoak... ia guztia dago abestietan idatzita dagoelako.

- **Gaiak aurkeztu:**

1. (Denok) ***Ikusi Mendizaleak (Rania)***→askatasuna (Gaia Iratik azalduko du)
2. (Hodei eta Alejandro) ***Gauden gu euskaldun (Garazi)*** + argazki bat erakutsiko
dute →lurraldetasuna →7 probintziak elkartuta, EH eta bere lotura kulturarekin,
batasuna, gaztetiko errepresioa eta ideien gorabehereak, natura (Gaia Alejandrok
azalduko du)
3. (Nahia, Jule eta Onditz) ***(Garazi) Aurre egingo dizueten emakumeek +***
gitarra Jimena) eta koroak → Feminismoa →emakumeen aurkako salaketa →aluzioa
(Gaia Julek azalduko du)
4. (Peio, Oier, Asier, Kimetz, Unai eta Markel) ***Izenez eta izanez (Garazi)*** →
(Gitarra Markelek eta besteek ahotsa) Espetxea eta tortura

5. (Irati, Malen, Joane, Nahie, eta Jare) **Zapalduen olerkia (Rania)** + gitarra eta pianoa → langabezia + langileen eskubideak + justizia soziala + errepresioa (Gaia Jare azalduko du) → piano + koreografia
6. (Mirari, Antonella, Ainhoa, Lizar, Aizane, Izadi eta Katixa) **Lorettoa (Rania)** + gitarra → askatasuna eta alaia (ez da natura → metafora bat) → Koreografia (Gaia Izadik azalduko du)
7. (Denok) **Txoria txori (Rania)** → Askatasuna

- **Amaiera:**

- Amaiera ematea ekitaldeari (Garazi)
- Eskerrak eman Juankarri, ikasleei, gurasoei eta beste parte hartu zuten pertsonak (Garazi)
- Eskerrik asko etortzeagatik (Rania)

Zoritxarrez, emanaldi honi amaiera emateko unea heldu da.

Baina, bereziki gure artean dagoen eta ezinbestekoa laguntza eskaini diguten pertsonai: Juankarri, Jimenari eta Igorri eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzez. Gure emanaldia aurrera ateratzeko lan handia egin dutelako. Gauden tokian, neurri handi batean, ere gerturatu zareten guraso eta publikoari, eskerrak eman.

- **Sarrera:**

Garazi: Arratsaldeon guztioi! Ongi etorri 'Kantu Errebeldeak'-era. Gure izenak Rania eta Garazi dira eta gaur inspirazioz betetako programa dugu. Hemen elkartu gara guztiok emanaldi berezi bat gozatzeko asmoz.

Rania: Bai, gaurko ekitaldia ez da ohiko jarduera bat. Hau gure bigarren ebaluazioko proiektu bat bezala hasi zen, baina ideia honek gora egin zuen. Pentsatu genuen: zergatik ez sortu zerbait praktikoa, sortzailea, dibertigarria eta era berean konprometitua? Horregatik, kantu errebelduen bidez gizarte arazoak aztertzea eta salatzea aukeratu dugu. Hala ere, euskara eta euskal kultura guregana nola iritsi diren aztertzen aritu gara, baina gaur gure helburu nagusia gazteok hain baliabideak ez garela erakustea izango da.

Garazi: Gaur zuekin partekatuko ditugun abestiek funtsezko gaiak jorratzen dituzte: langile klasearen borroka, euskara, gazte estereotipoak eta matxismoaren aurkako borroka. Letra horietako bakoitzak, istorio bat kontatzeaz gain, gure gizarteak dituen erronkei buruzko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu.

Rania: Baina gai horiek ulertu eta prestatzeko, baliabide asko erabili ditugu. Adibidez, hainbat kantutegi bildu ditugu. Edo hala ere, liburuan agertzen ziren adibideak erabili ditugu. Baina gure ustez, baliabide funtsezkoena motibazioa izan da.

Garazi: Beraz, entzule maiteok, presta zaitezte esperientzia musikal baterako. Esperientzia horrek dardara eragiteaz gain, gizartean duten paperaz hausnartzera ere gonbidatuko zaituzte. Ekin diezaiogun askatasunerako eta eraldaketarako bidaia zirraragarri honi!

- **Gaiak aurkeztu:**

Rania: Eta orain, has gaitezen lehenengo abestiarekin. Lehenengo aukeratu dugun gaia natura izan da. Zergatik? gure nortasun kulturala ospatzeko, mendiari diogun maitasuna bezalako elementu bereizgarriak erabiliz. Horretarako, abesti oso famatu bat aukeratu dugu. "Ikusi Mendizaleak". Gonbidatuta zaudete gurekin batera edozein abesti kantatzera.

Garazi: Hodeik eta Alejandrok "Gaude gu euskaldun" abestia aurkeztuko dute, Euskal Herriaren lurraldetasuna eta 7 probintzien batasuna nabarmentzen dituen argazki batzuen laguntzarekin.

Alejandro:



Garazi: Nahia, Jule eta Onditz, "Aurre egingo dizuten emakumeek" abestia aurkeztuko dute, Jimenaren gitarra eta koroekin lagunduta. Abesti honek feminismoaren irudia eta emakumeen aurkako indarkeria salatzen du.

Jule:

Garazi: Peio, Oier, Asier, Kimetz, Unai eta Markel: "Izenez eta izanez" aurkeztuko dute, kartzelako errealitatea eta tortura jorratzen dituen, memoria historikoa piztu nahian.

Peio:

Rania: Gure hurrengo abestia errepresioari buruzkoa izango da. Horretarako, Irati, Malen, Joane, Nahie eta Jarek "Zapalduen olerkia" abestia prestatu dute, eta piano eta gitarrarekin lagunduko diote.

Jare: Abesti hau Ken Zazpi taldeak sortutakoa da, zehazki 2005. urtean. Raniak esan duen bezala, abesti honen gaia errepresioa da, langileriaren errepresioa. Abestiak bestearen egia ulertzeko zailtasunaz eta sufritzen dutenen ikuspegitik istorioa kontatzearen garrantziaz hitz egiten du. "Zapalduen olerkia" kantuan, langileen borroka eta langileek jasandako mina dira aipatutako gaiak.

Rania: Eta orain, beste gai batera pasatuko gara: askatasuna. Mirari, Antonella, Ainoa, Lizar, Aizane, Izadi eta Katixa "Lorettoa" abestuko dute, eta gitarrarekin lagunduko diote.

Izadi:

Rania: Eta amaitzeko, berriro askatasunaren inguruan hitz egiten jarraituko dugu. Horregatik, denon artean "Txoria txori" abestuko dugu. Dakizuenez, abesti hau horrelako galdera sakon bat planteatzen du: txori bati hegoak moztuko zenizkioke ala hegan egiten utziko zenioke? Segur aski, guztiok ezagutzen duzue abesti hau. Horregatik, berriro gurekin batera kantatzera animatzen zaituztegu.

- **Amaiera:**

Garazi: Zoritxarrez, emanaldi honi amaiera emateko unea heldu da.

Baina, bereziki gure artean dauden eta ezinbestekoa laguntza eskaini diguten pertsonen: Jimenari, Naiarari, Igorri, Txabiri eta gure gelako taldekideei eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotz-bihotzez. Gure emanaldia aurrera ateratzeko lan handia egin dutelako. Gauden tokian, neurri handi batean, ere gerturatu zareten publikoari, eskerrak eman.

Rania: Eskerrik asko etortzeagatik!